

Le Service d'Aide à Domicile

Le Centre Communal d'Action Sociale de Cambo-Les-Bains gère un service prestataire d'aide à domicile agréé et autorisé par le Conseil départemental des Pyrénées-Atlantiques.

Qui peut bénéficier du service d'aide à domicile ?

Les bénéficiaires sont les personnes âgées et/ou handicapées résidant à Cambo-Les-Bains, dont le niveau d'autonomie ne leur permet pas d'assurer seules les tâches de la vie quotidienne.

Différents organismes peuvent aider les bénéficiaires au financement de l'aide à domicile, comme :

- > Les caisses de retraite,
- > Le Conseil départemental dans le cadre de l'Allocation Personnalisée à l'autonomie (A.P.A.), de la Prestation Compensatrice du Handicap ainsi que de l'Aide Sociale aux adultes âgés ou handicapés,
- > Les mutuelles.

Comment est organisé le service d'aide à domicile ?

Une quinzaine d'aides à domicile interviennent auprès d'une centaine de bénéficiaires selon un planning établi par la responsable du service d'aide à domicile.

Etxeko Laguntza Zerbitzua

Kanboko Gizarte Ekintzako Herriko Zentroak Pirinio Atlantikoetako departamentuko Kontseiluak onetsi eta baimendutako etxeko laguntza zerbitzua kudeatzen du.

Nor izan daiteke etxeko laguntza zerbitzuaren onuraduna?

Onuradunak Kanbon bizi diren adineko pertsonak edota pertsona elbarrituak dira. Haien autonomia-mailak ez die uzten eguneroko bizitzako eginkizunak bakarrik egiten.

Hainbat erakundek lagundu diezaiekete onuradunei etxeko laguntza finantzatzen, hala nola:

- > Erretreta kutxak,
- > Departamentuko Kontseiluak, Autonomiarako Laguntza Pertsonalizatuaren (APA), Elbarritasuna Konpentsatzeko Laguntzaren eta Adineko pertsonentzako edo pertsona elbarrituentzako Gizarte Laguntzaren barnean,
- > Mutualitateak.

Nola antolatzen da etxeko laguntza zerbitzua?

Hamabost bat etxeko laguntzailek esku hartzen dute ehun bat onuradunekin, etxeko laguntza zerbitzuaren arduradunak ezarritako egutegiaren arabera.

Quelles sont les missions de l'aide à domicile ? Zein dira etxeko laguntzailearen eginkizunak?

La finalité du service est de contribuer au soutien à domicile des personnes âgées et/ou handicapées, par le biais de plusieurs missions, qui sont :

- > Aider la personne âgée et/ou handicapée à conserver ou développer son autonomie, dans le respect de ses habitudes de vie, du règlement intérieur du service ainsi que du Plan d'Aide Personnalisé en accord avec elle.
- > Accompagner et aider la personne dans :
 - Les activités ordinaires de la vie quotidienne (tâches ménagères),
 - Les actes essentiels de la vie quotidienne (hygiène, alimentation, courses),
 - Les activités de la vie sociale et relationnelle (sorties, activités occupationnelles, ouverture vers le monde extérieur, lecture).
- > De participer au diagnostic de la situation et à l'adaptation de l'intervention avec la responsable du service.
- > Communiquer et assurer la liaison avec les autres intervenants, c'est-à-dire faire preuve en permanence de vigilance et signaler au référent et aux personnels soignants, tout état inhabituel ou tout manque d'évolution de la personne aidée et de son cadre de vie.

Zerbitzuaren helburua da zahar edota elbarrituei etxeko laguntza ematen laguntzea, hainbat eginkizunen bidez:

- > Adineko pertsonari edota pertsona elbarrituari bere autonomia mantentzen edo garatzen laguntzea, bere bizi-ohiturak, zerbitzuaren barne-araudia eta Laguntza Pertsonalizatuko Plana errespetatuz.
- > Pertsonari laguntzea:
 - Eguneroko bizitzako ohiko jardueretan (etxeko lanak),
 - Eguneroko bizitzako funtsezko ekintzetan (higienea, elikadura, erosketak),
 - Bizitza sozialeko eta harremanetako jardueretan (ateraldiak, jarduera okupazionalak, kanpoko mundura irekitzea, irakurketa).
- > Egoeraren diagnostikoan eta zerbitzuaren arduradunarekin esku-hartzearen egokitzapenean parte hartzea.
- > Gainerako parte-hartzaileekin komunikatzea eta haiekilako lotura ziurtatzea, hau da, etengabe erne egotea eta zerbitzuaren erreferenteari eta osasun-langileei ohiz kanpoko edozein egoera edo lagundutako pertsonaren eta haren bizi-esparruaren bilakaera falta oro jakinaraztea.

Le portage de repas

Ce service a été créé le 29 avril 1992. En 2022, 15 971 repas ont été distribués. L'agent chargé de cette fonction permet ainsi d'assurer un suivi de ces bénéficiaires souvent isolés.

Depuis le 1er janvier 2012, le centre communal d'action sociale a choisi l'entreprise Suhari de Saint-Pée-Sur-Nivelle pour la préparation des repas portés à domicile.

Ce service est ouvert à toutes les personnes qui, pour des raisons liées à l'âge ou à l'état de santé, sont dans l'incapacité momentanée ou définitive de préparer leur repas.



Le prestataire propose tous les jours deux menus distincts composés d'un potage, d'une entrée, d'un menu varié (viande, volaille, poisson), accompagné de légumes de saison, d'un fromage et d'un dessert (les fournisseurs sont locaux et les produits biologiques).

Apairuak etxera eramateko zerbitzua

Zerbitzu hau 1992ko apirilaren 29an sortu zen. 2022an, 15 971 apairu banatu ziren. Eginkizun horretaz arduratzen den langileak askotan bakarturik dauden onuradun horien jarraipena egiteko aukera du.

2012ko urtarrilaren 1etik, Senpereko Suhari enpresa aukeratu du Gizarte Ekintzako Herriko Zentroak etxera eramateko apairuak prestatzeko.

Zerbitzu hau adinarekin edo osasun egoerarekin zerikusia duten arrazoiengatik janaria prestatzeko ezintasun iragankor edo behin betikoa duten pertsona guztientzat zabalik dago.



Hornitzaileak bi menu proposatzen ditu egunero: salda bat, hasierako plater bat, askotariko menua (haragia, hegaztikia, arraina), sasoiko barazkiekin, gasna eta azkenburukoa (hornitzaileak tokikoak dira eta produktuak biologikoak dira).

Des menus spécifiques adaptés aux régimes (diabétiques, sans sels, mixés, hachés...) peuvent être établis sur simple demande. Ils répondent aux normes d'hygiène en vigueur et sont confectionnés le jour de la livraison par un traiteur et une diététicienne afin que l'alimentation soit équilibrée.

Dietetara egokitutako menu espezifikoak (diabetikoak, gatzik gabekoak, irabiatuak, xehatuak...) egin daitezke, hala galdatuz gero. Indarrean dauden higie-ne-arauek betetzen dituzte, eta janari prestatzaile batek eta dietalari batek prestatzen dituzte egunean berean, elikadura orekatua izan dadin.

Les repas, conditionnés dans des barquettes hermétiques et livrés quotidiennement, peuvent être pris 7 jours sur 7, entre 8h00 et 12h30, au prix unitaire de 8,40 € (facturation mensuelle). Le nombre de repas pris par semaine, entre 1 et 7, peut être modifié jusqu'à 72h avant la distribution sur simple appel téléphonique avant 12h au bureau du C.C.A.S. (05.59.93.50.76).

Apairuak, erretilu hermetikoetan ontziratuta eta egunero hornituta, astean 7 egunetan har daitezke, 08:00etatik 12:30era, aleko 8,40 €-ko prezioan (hilabeteko fakturazioa). Asteko apairu-kopurua, 1 eta 7 artekoa, banatu baino 72 ordu lehenago alda daiteke, GEHZren bulegora 12:00ak baino lehen telefonoz deituta (05.59.93.50.76).